

eGela Zerbitzua

Gradu eta master ofizialen ikasgelako irakaskuntza osatzeko ikasgela birtualak

Ikasleentzako eskuliburua

3. bertsioa (2016/07/02)

Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Campus Birtualak landu du.

Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.




Aurkibidea

Aurkibidea.....	2
Zer da eGela?.....	3
Zer da Moodle?.....	3
Moodle-ren erabilerak.....	3
eGelarako sarbidea.....	3
Ikasgela birtuala	6
Nabigazio-blokea.....	8
Kudeaketa-blokea.....	10
Blokeak laburtzea eta zabaltzea.....	13
Baliabideak.....	15
Jarduerak.....	17
Zereginak.....	18
Foroak.....	22

Zer da eGela?


UPV/EHUko eGELA zerbitzuak irakasleei ikasgela birtualak edukitzeko aukera ematen die, gradu eta master ofizialen ikasgelako irakaskuntza osatzeko, eta ikasleei, berriz, horietarako sarbidea. Ikasleak matrikulatuta dauden ikasgeletara sartzan dira, irakasleak sortzen eta ikasleen esku jartzen dituen unean.

 *Irakasleentzat hautazkoa da ikasgela horiek erabiltzea.*

Ikasgelak Moodle plataforman kokatzen dira. "eGela" zerbitzuaren izena da, eta horren bidez erabilitako plataforma eta zerbitzua bereizi nahi dira.

Zer da Moodle?

Moodle teleprestakuntzako plataforma bat da, lankidetzan eta laguntzan oinarritutako eskema baten arabera diseinatutakoa, eta bertara sartzeko web nabigatzaile bat erabili behar da (Internet Explorer, Firefox, Chrome, etab.).

 *UPV/EHUko Campus Birtualak Firefox erabiltzea gomendatzen du.*

Moodle erabiltzeko, beharrezkoa da ordenagailu bat edukitzea eta, gutxienez, web nabigatzaile bat, Interneterako konexioarekin. Gailu mugikorretatik sartzeko aukera ere eskaintzen da.

Moodle-ren erabilerak

Moodle plataformak aukera hauek eskaintzen ditu:

- Irakasgaiaren material didaktikoa aurkeztea.
- Informazio-baliabideak ematea, hala nola argazkiak, txatak, audioak, bideoak, webguneak, etab.
- Hainbat jarduera, ikasleak, beren artean edo irakaslearekin, elkarrekintzan jardun daitezten.

eGelarako sarbidea


UPV/EHUren gradu eta master ofizialen ikasgelako irakaskuntzaren osagarri diren ikasgela birtual hauetara sartzeko, ikasleek honako url hau sartu beharko dute, nabigazio-barran:

<https://egela1617.ehu.eus>



1. irudia: eGelaren orri nagusia


Orri horretara sartzekoan, gure identifikazioa eman behar dugu plataforman, pantailan ageri diren esteketako bat sakatuta. Esteka horrek egiaztapenaren orrira eramango gaitu:



2. irudia: eGelaren egiaztapenaren orria


 **Erabiltzailea eta pasahitza matrikula egiteko unean emango dizkigute.**

Lehenengo aldiz egiaztapena egin eta gero, "Gunearen baldintzen akordioa" onartu beharko dugu, hurrengo irudian ikus dezakegun moduan:



3. irudia: Gunearen baldintzen akordioa

Beste orri bat irekiko da, eta hor ikusiko dugu aktibo eta agerian dauden gure irakasgaien zerrenda:



4. irudia: Egiaztapenaren ondorengo gunea

! *Plataformara sartzean, gure irakasgaiak ez aurkitzea edo guztiak ez egotea gerta daiteke. Horren arrazoiak izan daitezke:*

- *Gure irakasleak ikasgela birtuala sortu gabe edukitzea edo erabili nahi ez izatea.*
- *Gure irakasleak ikasgela sortua edukitzea, baina oraindik ikasleen esku ez egotea.*

Rasu batean nahiz bestean, zure irakaslearengana jotzea gomendatzen zaitugu, zer egoeratan zauden argi diezazun.

! *Gerta daiteke ere irakasgai baten izena zuzena izatea, baina gradu edo taldearena, itxuraz, ez. Hori gertatzen da irakasleek ikasgela birtualak "bateratu" ditzaketelako,*

hainbat talde eta graduiko ikasleak espazio birtual bakarrean bilduz. Eragiketa horretan, ikasgela birtuala oinarritzat hartzen da, eta horixe da, hain zuzen, eGelaren zerrendan agertuko dena.

Zalantzaren bat edukiz gero, zure irakaslearengana jotzeko gomendatzen zaitugu, zer egoeratan zauden argi diezazun.

Gure irakasgaietako batera sartzeko, haren izenaren gainean sakatu behar dugu.




5. irudia: Irakasgaiaren sarbidea

Ikasgela birtuala

Gure irakasgaiaren barruan sartu ondoren, ongi bereizitako bost gune ikusiko ditugu:

- Goiko gunea: goiburua.
- Ezkerreko zutabea: "Nabigazio" eta "Kudeaketa" blokeak.
- Eskuineko zutabea: beste bloke batzuk.
- Erdiko gunea: gaien diagrama.
- Beheko gunea: identifikatzeko gunea.



6. irudia: Ikasgela birtuala

- **Berdez markatuta**, 6. irudian, **goiburua** dugu, eta hor plataformako gure identifikazioa topatuko dugu, zerbitzuaren izenarekin eta UPV/EHUreren logotipoarekin batera. Gure izenaren gainean sakatuz gero, gure profilerara sartuko


gara. Horren ondoan, "irten" aukera dugu, plataformatik ateratzeko. Ezkerrean, berriz, hizkuntza aldatzeko aukera ematen duen menu hedagarri bat dugu, eta horren azpian, nabigazio-barra. Bertan, non gauden adierazten zaigu une oro, eta plataforman mugi gaitzke, esteken gainean sakatuta. Dena den, aurrerago ikusiko dugun moduan, hori ez da eGelan zehar mugitzeko modu bakarra.

- **Gorriz markatuta**, 6. irudiaren ezkerrean, "**Nabigazioa**" eta "**Kudeaketa**" blokeak ditugu. Bloke horien bidez, gunean zehar mugitu ahal izango gara, eta plataformak gure rolaekin lotuta ematen dizkigun ezarpen-aukera guztiak kudeatu ahal izango ditugu.
- **Morez markatuta**, irudi beraren eskuinaldean, **ikasgeletan lehenetsitako beste bloke batzuk agertzen zaizkigu**. Kontuan hartu behar dugu, Moodle plataforman, irakasleek bloke asko gehi ditzaketela gure ikastaroetara eta, horiek sartzean, haien itxura alda daitekeela; dena den, normalean, orriaren alboetan kokatzen dira. Era berean, erabiltzaileak bloke horiek ezkuta ditzake.
- **Beltzez markatuta**, 6. irudian, **erdiko gunea edo edukiaren gunea dugu, non gaien diagrama kokatzen den**. Asteka edo gaika aurkez daitezke eGelako ikastaroak, irakasleak ikastaroa antolatzeke aukeratutako moduaren arabera. Aste edo gai bakoitzean, hainbat jarduera edo baliabide sortzen dira, irakasgaia emateko erabiliko direnak.
- **Laranja markatuta**, behealdean, identifikatzeko gunea topatuko dugu berriro, eta horren bidez gure profilerara sartu, eta plataformatik atera gaitzke.

Nabigazio-blokea

Nabigazio-blokea Moodleren 2.x bertsioek eskainitako aukera berria da. Guneko orri guztietan ageri da **nabigazio-blokea**. Zabaltzen den zuhaitz-itxurako menu bat dauka. Nabigazio-blokean ageri diren estekak honako hauen menpe daude: erabiltzailearen rola, Moodle guneko zer tokitan dauden eta oro har aplikatutako zeinahi ezarpena. Horregatik, plataforman nabigatzen goazen heinean, nabigazio-blokearen estekak aldatuz joango dira.


Gunean, nabigazio-blokeak honako esteka hauek erakutsiko dizkio ikasle-rola duen pertsona bati:



7. irudia: Nabigazio-blokea, orri nagusian

- **Orri nagusia:** hasierako orrira eramango gaitu.
- **Gune pertsonala:** gure ikastaroen gaineko ikuspegi orokorra jaso ahal izango dugu, eta bertan, ikastaro horietako jardueren egoera ikusi, eta "Nire fitxategi pribatuak" blokerak sartu ahal izango gara (2.Xren berrikuntza).
- **Gunearen orriak:**
 - **Guneko blogak:** Moodlek hiru mailatan kudeatzen ditu blogak: pertsonala, ikastaroa eta gunea. Azken hori da plataforman argitaratzen dena. Guneko bloga da handiena; izan ere, **erabiltzaile guztien blog pertsonaletako sarrera guztiek** osatzen dute. Guneko blogean sarrera bat gehitzeko, "gehitu sarrera berria" esteka sakatu beharko dugu. Sarrera hori guneko blogera eta erabiltzailearen blog pertsonalera gehituko da. **Horrek esan nahi du, berez, plataformako erabiltzaileek erabiltzaile guztien blogak ikus ditzaketela, zeinahi ikastarotan matrikulatuta egonda ere.** Guneko blogeko sarrera batean klik eginez gero, sarbidea izango dugu sarrera horretara ez ezik, sortu zuen erabiltzailearen blog pertsonalera ere. Kudeatzaileak ikasgela konfiguratu dezake, erabiltzaile bakoitzak soilik bere blogerako sarbidea izan dezan; edo, ezaugarri hori ere desaktibatu dezake.
 - **Guneko dominak:** ikasleen lana saritzeko balio dute dominek.

- **Markak:** hitzak edo esaldi motzak dira, eta ikasle nahiz irakasleei beren interesak deskribatzeko aukera ematen diete, antzeko interesak dituzten pertsonak erraz aurki ditzaten. Erabiltzaile-profilean, "Interesak" izeneko eremu bat dago. Bertan, gure intereseko gauzak hobekien deskribatzen dituzten markak gehitu ahal izango ditugu; horrelakoak sortzean, berri gisa agertuko dira edo lehendik zegoen marka bat gehituko diote erabiltzaileari. Era berean, markak jar diezaikegu nola webguneei hala blogetako sarrerei (post).
- **Egutegia:** esteka honek egutegi batera eramango gaitu, eta hor ikusiko ditugu gune osoarentzat komunak diren ekitaldiak eta ikastaroari dagozkionak. Erabiltzaileak, halaber, bere ekitaldi pertsonalak gehitu ahal izango ditu. Egutegia agenda bat bezala erabiltzen da.
- **Nire profila:**
 - **Ikusi profila:** profila ikusteko esteka sakatuz gero, orri bat agertuko zaigu, gure profileko datuekin. Orri horretan bertan, profila editatzeko aukera ematen duen kudeaketa-blokea ere ikusiko dugu.
 - **Mezuak foroetan:** bi esteka ditu
 - Mezuak. Foroetan egin ditugun ekarpen guztiak jasotzen ditu
 - Eztabaidak. Guk hasitako eztabaidak baino ez ditu jasotzen.
 - **Blogak:** hiru esteka erakutsiko dizkigu
 - Ikusi nire sarrera guztiak.
 - Gehitu sarrera berria. Gunean argitaratzea edo guk bakarrik ikustea (zirriborroa) aukeratu dezakegu.
 - Blogaren RSS iturria: Erabiltzaileen blogetara harpidetzeko aukera ematen digu.
 - **Nire artxibo pribatuak** (2.Xren berritasuna). Barne-gordailu bat da, eta fitxategiak plataformara igotzeko aukera ematen digu, gunearen mailan. Fitxategi horiek erabiltzaileak bakarrik eskuratu ahal izango ditu, baliabide edo zeregin batean lotzen ez diren bitartean.
 - ⚠ *eGelaren orri nagusiaren gune pertsonaletik sar gaitzke bertara.*
 - **Nire dominak:** irabazi ditugun dominak erakusten dizkigu.
- **Nire ikastaroak:** plataforman parte hartzen ari garen ikastaroen zerrenda ikusiko dugu hemen, eta ikastaroetara azkar sartzeko aukera emango digu.




8. irudia: Nabigazio-blokea, ikastaroan, ikasle-rolean

Ikastaroaren mailan, nabigazio-blokeak (ikus 8. irudia) aurreko estekak eta oraingo ikastaroa erakusten dizkigu.

- **Oraingo ikastaroa:**
 - **Partaideak:** ikastaro baten partaideen zerrenda erakutsiko digu.
 - **Dominak:** ikastaro baten emandako dominak erakutsiko dizkigu .
 - **Orokorra:** gure ikastaroko 0 blokerako sarbidea emango digu (bertan dago "Berrikuntzak" foroa).
 - **Gaiak:** ikastaroko gaietara sartzeko estekak ikusiko ditugu, eta, baliabide edo jarduera atxikiak edukiz gero, horietara sartzeko estetak ere agertuko zaizkigu.

Kudeaketa-blokea

Ezkerreko zutabearen kokatutako kudeaketa-blokeak hainbat esteka erakutsiko dizkigu, plataforman gauden tokiaren arabera:




9. eta 10. irudiak: Kudeaketa-blokea orri nagusian eta kudeaketa-blokea ikasle-rollean, ikastaroaren mailan.


- **Nire profilaren ezarpenak:** gure profila editatzeko eta jakinarazpenak konfiguratzeke aukera ematen digu.
 - **Profila editatu.** Atal honetan, gure profileko aukera batzuk aldatu ahal izango ditugu, eta gure erabiltzailea identifikatzeko irudi bat igo ahal izango dugu. Irudiak JPG edo PNG formatua izan behar du (alegia, irudiaren izenak .jpg edo .png amaiera izan beharko du), eta 100 x 100 pixel edo hortik gorako tamaina. Irudi bat jartzeko, lau modu hauek ditugu:
 1. Argazki-kamera digital bat erabiltzea. Oso erraza da; izan ere, gure argazkiak, seguru asko, formatu egokian egongo dira ordenagailuan.
 2. Eskanerra erabiltzea, inprimatutako argazki bat digitalizatzeko. Ziurtatu behar dugu argazkia JPG edo PNG formatuan gordetzen dela.
 3. Era berean, irudi bat marraztu dezakegu, diseinu-programa batez baliatuta.
 4. Edo, sarean bila dezakegu identifikatzen gaituen irudia. Behin aurkituta, kurtsorea gainean jarri, eta, saguaren eskuineko botoia sakatuta, "Gorde irudia honela" aukera hautatuko dugu (Prozedura hori alda daiteke, ordenagailu motaren arabera).

Irudia igotzeko, bi aukera ditugu.

1. "Gehitu" aukera sakatzean, **fitxategi-hautatzailea** irekiko zaigu, fitxategiak kudeatzeko Moodle 2.5 bertsioaren tresna berria. Fitxategiak gehitzeko eremuan, gure argazkia igo dezakegu. Eredu horretan, ordenagailuan arakatzeko eta nahi dugun argazkia gehitzeko aukera izango dugu. Amaitzeko, "Igo fitxategi hau" aukera sakatuko dugu.




11. irudia: Profila editatzeko inprimakia, "Erabiltzailearen irudia" atalean



12. irudia: Fitxategi-hautatzailea, "Igo fitxategia" aukera

2. Irudia hartu eta eraman inprimakira

! Internet Exploreren 10. bertsioa baino bertsio txikiagoa erabiliz gero, aukera hori ez dago erabilgarri




13. irudia: Fitxategi bat hartu eta eraman

! Ziurtatu behar dugu ez dugula igoko baimendutako gehieneko tamaina baino handiagoa den irudi bat (bytetan), ez baita kargatuko.

Ondoren, klik egingo dugu "Eguneratu informazio pertsonala" aukeran (orriaren beheko aldean). Irudia 100 x 100 pixel baino handiagoa bada, moztu egingo da.

Gure irudia aldatzen edo igotzen amaitzen dugunean, litekeena da aldaketa ez ikustea. Hala gertatuz gero, orria eguneratu behar dugu (F5 edo eguneratzeko botoia sakatuta).

- **Mezularitza:** mezuak zer eratan jaso nahi ditugun adierazi ahal izango dugu, "mezularitzako nire profilaren ezarpenak" aukeraren bidez. Erabilgarri ditugun aukeren artean, ateratako leihoa edo/eta mezu elektronikoa hauta dezakegu.
- **Blogak: lehenetsunak.** Esteka honetan, blog sarreren kopurua finkatu ahal izango dugu, orri bakoitzeko.
- **Dominak: aukerak.** Gure profilan irabazitako dominak agertuko zaizkigu. Aldatzeko, esteka honetan sartuko gara eta kontrol-laukia desmarkatuko dugu.
- **Kalifikazioak:** ikastaroan egindako jardueren eta lanen kalifikazioak ikus dezakegu bertan.




Kalifikazio-elementua	Kalifikazioa	Ibiltartea	Portzentajea	Feedbacka
Curso De prueba/Probatarako ikastaroa				
Tarea Ejemplo/ Zeregina adibidea	-	0-100	-	
Ebaluazio-gida	-	0-100	-	
errubrika	-	0-100	-	
Rúbrica	-	0-100	-	
Zeregin berria	80,00	0-100	80,00 %	Zure lana oso ondo antolatu eta azaldu duzu
Ikastaroan guztira	80,00	0-100	80,00 %	

14. irudia: Kalifikazioak, erabiltzailearen ikuspegian

Blokeak laburtzea eta zabaltzea

Blokeen ezaugarri hau 2.X bertsioen berrikuntza bat da. Orriaren erdiko gunean espazio gehiago lortzeko aukera ematen digu.




15. irudia: Nabigazio-blokearen menua erakutsita

16. irudia: Nabigazio-blokearen menua ezkutatuta


☰ ikonoak blokearen menua ezkutatzeko aukera emango digu. Eta berriro erabilgarri jartzeko, honako ikono honen gainean egin beharko dugu klik: ☰

! ☰ ikonoa, berriz, Moodle 2.Xren berrikuntza bat da, eta blokea **dock edo alboko barrara** mugitzeko balio du. Blokea alboko barrara mugituta edukita, eskuragarri izango dugu une oro, nonahi gaudela ere: irekitzekoaren gainean klik egin beharko dugu, besterik ez. Eta berriro jatorrizko itxurara eramateko, **☰** ikonoa erabili beharko da.



17. irudia: Alboko barran edo dockean laburtutako blokeak

Irekitzeko honen gainean klik egin ondoren, blokearen menua ikusiko dugu, eta jatorrizko itxura emateko edo ezkutatzeko ikonoak.



18. irudia: Nabigazio-blokea albara mugituta (dockera edo alboko barrara bidalita)

Ikono horiek berdinak dira Moodleren bertsio honetako plataforman aurkituko ditugun bloke guztietan.

! Blokeekin horrela lana egiteko ohitura ez dugunez, gure blokeak gure orritik "desagertu" direla pentsatzea gerta dakiguke. Berriro agerraraztea oso erraza da: aski


da alboko barraren irekitzekoan eta blokeak zabaltzeko ikonoaren gainean sakatzea. Horrela, jatorrizko kokalekuan edukiko ditugu berriro.

Baliabideak

Baliabide bat irakasle batek ikaskuntza osatzeko erabil dezakeen objektu bat da, hala nola fitxategi bat eta esteka bat. Moodlek askotariko baliabideak onartzen ditu, irakasleek ikastaroaren atalean jar ditzaketenak. Baliabideak esteka modura agertzen dira, eta aurrean ikono bat dute, zer baliabide mota den adierazteko.


- Fitxategia: irudi bat, PDF dokumentu bat, kalkulu-orri bat, soinu-artxibo bat, bideo-artxibo bat.
- Karpeta: karpetak lagungarriak dira fitxategiak antolatzeko. Horien barruan, beste karpeta batzuk sar daitezke.
- Etiketa: hitz gutxi batzuk izan daitezke, edo irudi bat, gai edo ikasgai beteko baliabideak eta jarduerak bereizteko.
- Liburua: orri anitzeko baliabideak, liburu baten itxurakoak.
- Orria: ikasleek nabigatzeko orri simple bat ikusten dute, irakasleak HTML editorearen bidez sortutakoa.
- IMS edukia duen paketea: estatistikako materiala gehitzen du beste baliabide batzuetatik, IMS formatu estandarrean.
- URL: ikasleak edozein lekura eraman ditzake, nabigatzailearen bidez...

Baliabide baten izenaren gainean klik egiten dugunean, horren edukira sartuko gara.



19. irudia: Baliabide baterako esteka, gai batean

Gure irakasgaiaren irakasleak jardueren blokea ikastaroan sortu badu, baliabide guztiak ikusi ahal izango ditugu, bloke horren "Baliabideak" izeneko estekan sakatuz gero.




20. irudia: Jardueren blokea, Baliabideen esteka

Edozein luzapeneko fitxategi bat jaisteko, pauso hauek eman behar ditugu:

1. Jaitsi nahi dugun fitxategia dagoen moduluan jarri.
2. Fitxategiaren izena sakatu.
3. Nabigatzaileak fitxategiari buruzko informazio hau emango digu : izena, mota, tamaina eta jatorria. Horrez gain, bi aukera emango dizkigu: irekitzea edo gordetzea. Gordetzea hautatzen badugu, fitxategia gure PCra jaitsiko da. Leihoaren azpian dagoen baieztatzeko laukia markatuz gero, aurrerantzean, nabigatzaileak automatikoki fitxategi guztiekin gauza bera egitea hautatuko dugu.
 - Ireki fitxategia
 - Gorde fitxategia

Hautatutako ekintza osatzeko, "Onartu" botoian egin behar dugu klik.




21. irudia: Fitxategi bat jaisteko prozesua

Behin deskargatuta, fitxategia gure PCaren deskargen karpetan aurkituko dugu.

Jarduerak


Irakasleek hainbat tresna dituzte Moodle plataforman, eta, beren irakasgaietan horietaz baliatuz gero, ikasleek beraiekin edo irakasle-taldearekin elkarreraginean aritzeko aukera izango dute.

Jardueretara sartzeko bi aukera ditugu: 1) Ikastaroaren gaiaren izenean edo astean sakatzea; edo, 2) Jardueren bloketik, nahi dugun jardueraren izenaren gainean sakatzea, irakasleek bloke hori ikastaroan sortu badute.



22. irudia: Jardueren blokea, zereginetarako esteka 23. irudia: Zeregin baterako esteka, gai batean

eGela plataformaren ikasgela batean askotariko jarduerak egin daitezke. Informazio gisa, jardueren zerrenda bat ematen dugu, bakoitzari dagokion identifikazio-ikonoarekin batera.



24. irudia: Jardueren zerrenda, eGelan

Jarduera hauetan irakasleek, normalean, argibide zehatzak ematen dituzte ikasleei proposatutako jarduera edo zeregin bakoitzari buruz.

Zereginak

Zereginak ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko jarduerak dira; hala, irakasleak eginkizun bat jartzen du, eta gero berrikusi, baloratu eta kalifikatu egiten du.

Ikasleek edozein eduki digital (fitxategiak) aurkez dezakete, hala nola testu-dokumentuak, kalkulu-orriak, irudiak, audioak eta bideoak. Aukeran, edo osagarri gisa, zereginak ikasleei testu bat eremu batean idazteko eska diezaieke, testu-editorea erabilita.

Tarea Ejemplo/ Zeregina adibidea

Azalpena

Bidalketen egoera

Saiakera-kopurua	Hau 1. saiakera da (2 saiakera onartzen dira).
Bidalketaren egoera	Saiaketarik ez
Kalifikazioaren egoera	Kalifikatu gabea
Entregatze-data	igandea, 2014(e)ko abuztua(r)en 31(a)n, 13:30(e)tan
Geratzen den denbora	3 egun(ak)

Zure bidalketan aldaketak egin

25. irudia: Zeregin baten adibidea

Tarea Ejemplo/ Zeregina adibidea


Azalpena

▼ Fitxategi-bidalketak

Gehienezko tamaina fitxategi berrietarako: 10MB, gehienezko eranskin-kopurua: 1

📁 Gehitu...
📁 Sortu karpeta

▶ Fitxategiak



Fitxategiak gehitzeko, hartu eta eraman ahal dituzu.

26. irudia: Zereginak bidaltzeko pantaila


Zeregin bati dagokion estekan sakatu ondoren, 25. irudian ageri den pantaila agertuko zaigu. Bertan, elementu komunak ikus daitezke:

1. Zeregina egiteko argibideak.
2. Entregaren egoera.
3. Entrega gehitzeko botoia.

Entrega gehitzeko botoia sakatzen dugunean, zeregina bidaltzeko txantiloia agertuko zaigu (ikus 26. irudia).


Eragiketa hori bi modutan egin dezakegu:

1. **Hartu eta eraman.** Modu hau da erosoena. Internet Explorerren 10. bertsioa baino bertsio txikiagoa erabiliz gero, aukera hori ez dago eskuragarri.




27. irudia: Fitxategiak igotzea, "hartu eta eraman" moduan

Hurrengo irudian, igotzeko gunean fitxategia dagoela ikus dezakegu. Prozesu hori osatzeko, aldaketak gordetzeko botoia sakatu behar dugu.



28. irudia: Fitxategi bat, irakasleari bidaltzeko prest

Fitxategia igo ondoren, hurrengo pantaila irekiko zaigu, eta bertan egiaztatuko dugu fitxategia ongi igo den eta zeregina zer egoeratan dagoen.


Bidalketen egoera	
Saiakera-kopurua	Hau 1. saiakera da (2 saiakera onartzen dira).
Bidalketaren egoera	Zirriborroa (bidali gabea)
Kalifikazioaren egoera	Kalifikatu gabea
Entregatze-data	igandea, 2014(e)ko abuztua(r)en 31(a)n, 13:30(e)tan
Geratzen den denbora	3 egun(ak)
Azken aldaketa	osteguna, 2014(e)ko abuztua(r)en 28(a)n, 12:59(e)tan
Fitxategi-bidalketak	 zeregina.docx

Irakasleak saiakera bat baino gehiago baimentzen badu, gure bidalketa edita dezakegu (26.irudia).

Zure bidalketan aldaketak egin


29. irudia: Entregaren egoera, fitxategia bidalita

2. **Gehitu fitxategia.** Zereginak bidaltzeko txantiloian, gehitzeko botoia sakatuko dugu.



30. irudia: Zereginak bidaltzea, gehitu fitxategia


Fitxategiak gehitzeko botoia sakatzean, fitxategi-hautatzailea irekiko zaigu, eta hortxe jarriko dugu entregatu nahi dugun fitxategia, eskura dauden gordailuetatik hartu ondoren.



31. irudia: Fitxategi-hautatzailea

Aukera hauek daude:

- **Azken fitxategiak:** plataformara igo ditugun azken 50 fitxategiak aurkituko ditugu hemen. Nahi dugun fitxategia hautatu, eta haren ikonoaren gainean sakatuko dugu. Igotzeko eremuan agertzen zaigunean, klik egingo dugu aldaketak gortzeko botoian.
- **Igo fitxategia:** aukera honen bidez, gure PCan arakatu, eta ekipoa ditugun fitxategiak igo ditzakegu. Arakatzeko botoiaren bidez hautatu, eta gero klik egingo dugu "Igo fitxategi hau" botoian.





The screenshot shows a form with the following fields:


- Eranskina: Examinar... zeregina.docx
- Gorde honela: [Empty text box]
- Egilea: ikaslea1 ikaslea1
- Aukera ezazu lizentzia: Eskubide guztiak erreserbatuta

The button "Igo fitxategi hau" is highlighted with a red box.

32. irudia: Igo fitxategi hau





- **Fitxategi pribatuak:** lehendik fitxategiren bat gure gordailu pribatura igo badugu, esteka honek bertara sartzeko aukera emango digu. Horretarako, irudikatzen duen ikonoaren gainean sakatuko dugu. Igotzeko eremuan agertzen zaigunean, klik egingo dugu aldaketak gordetzeko botoian.
-  *Gure fitxategi pribatuen gunera fitxategi bat igotzeko, eGelako orri nagusiaren gune pertsonalera joan, eta "Nire fitxategi pribatuak kudeatu" botoia sakatuko dugu. Fitxategi bat igotzeari buruzko atalean deskribatu den moduan igo ditzakegu fitxategiak gordailu horretara.*



33. irudia: Orri nagusia/Gune pertsonala/Kudeatu nire fitxategi pribatuak







Fitxategia gehitzean agertzen zaizkigun hiru gordailu horiei dagokienez, **hartu eta eraman** aukerarako lehen ikusi dugun moduan, aldaketak gordetzeko botoia sakatu beharko dugu, zeregina bidaltzeko (28. irudia).

Zeregina kalifikatu ondoren barrura sartzen bagara, testu-lauki bat ikusiko dugu, non adieraziko zaigun irakasleak zeregina kalifikatu duen, zer datatan ebaluatu duen, zer kalifikazio lortu dugun eta lanari buruzko iruzkin bat.

Bidalketen egoera	
Bidalketaren egoera	Kalifikatzeko bidalia
Kalifikazioaren egoera	Kalifikatua
Entregatze-data	ostirala, 2014(e)ko abuztua(r)en 15(a)n, 09:20(e)tan
Geratzen den denbora	Bidalketagaraiz bidali zen: 2 egun(ak) 23 ordu(ak)
Azken aldaketa	asteartea, 2014(e)ko abuztua(r)en 12(a)n, 09:47(e)tan
Fitxategi-bidalketak	 zereginari erantzunez.docx
Feedbacka	
Kalifikazioa	80,00 / 100,00
Noiz kalifikatua	asteartea, 2014(e)ko abuztua(r)en 12(a)n, 09:54(e)tan
Nork kalifikatua	 Irakaslea
Feedback-iruzkinak	Zure lana oso ondo antolatu eta azaldu duzu

34. irudia: Zeregina, kalifikatu ondoren

Zeregin baten kalifikazioa ikusteko, kudeaketa-blokearen "kalifikazioak" estekara jo dezakegu.

Erabiltzailearen txostena - ikaslea1 ikaslea1				
Kalifikazio-elementua	Kalifikazioa	Ibiltartea	Portzentajea	Feedbacka
Curso De prueba/Probatarako ikastaroa				
 Tarea Ejemplo/ Zeregina adibidea	-	0-100	-	
 Ebaluazio-gida	-	0-100	-	
 errubrika	-	0-100	-	
 Rúbrica	-	0-100	-	
 Zeregina berria	80,00	0-100	80,00 %	Zure lana oso ondo antolatu eta azaldu duzu
 Ikastaroan guztira	80,00	0-100	80,00 %	

35. irudia: Rudeaketa-blokea/Kalifikazioak/Erabiltzailea

Foroak.

Jarduera honek arian-arian proposatzen diren gaiak buruz eztabaidatzeko aukera ematen digu. Foroak hainbat modutan egitura daitezke, eta mezu bakoitzari ikaskideek emandako ebaluazioa eduki dezakete. Mezuak ere hainbat modutan ikus daitezke. Mezu atxikiak eta irudi txertatuak sar daitezke. Foro bateko harpidetza egitean, partaideek mezu bakoitzaren kopiak jasoko dituzte beren posta elektronikoko postontzian.


Foroetan, bi kategoria bereizten dira:

Berrien foroak. Ikastaroaren 0 atalean dago, eta iragarki-ohol baten modura funtzionatzen du. Ikasleek ezin dute parte hartu.

Ikaskuntza-foroak (ikastaroaren atal espezifiko baten foroak). Hainbat foro mota daude. Mezu guztiek eramaten dute egilearen argazkia atxikita. Eztabaidak habiaratuta edo adarka ikus daitezke, edo mezu berrienak hasieran eta zaharrenak amaieran.

Horietara sartzeko, bi modu daude:

- Jardueren bloketik, "Foroak" esteka sakatuta, baldin eta bloke hori ikastaroan aktibatuta badago.



36. irudia: Jardueren blokea, foroen esteka

Esteka sakatu ondoren, orri hau irekiko zaigu, eta bertan informazio hau ikusiko dugu: erabilgarri dauden foroen zerrenda, foroetan lantzen diren gaiak eta erabiltzailearen harpidetzari buruzko informazioa.



Foroa	Deskribapena	Eztabaidak	Harpidetuta
Berrien foroak	Novedades y anuncios	1	Bai


Gaia	Foroa	Deskribapena	Eztabaidak	Harpidetuta
Gaia 1	Foro de prueba: uso general/ Foro proba: erabilera orokorra	Foro proba: erabilera orokorra	5	Bai
	Foro prueba: debate sencillo/Foro proba: eztabaida		1	Ez

ikaslea1 ikaslea1 barruan da (Irten)

prueba/proba

37. irudia: Jardueren blokea/Foroak/Erabilgarri dauden foroen zerrenda

- Gaien diagramatik, foroaren esteka sakatuta, dagokion gaien edo astean.



38. irudia: Foro baterako esteka, gaien diagraman

Foroan landutako gaiak ikus ditzakegu hemen eta **gai berri bat gehi dezakegu foroan**, botoiaren gainean klik eginda. Horrez gain, gaia hasi duen pertsonari, erantzunei eta mezuaren datuei buruzko informazioa ematen zaigu.

Eztabaida	Nork hasia	Erantzunak	Azken mezua
Foroa zelan erabili?	ikaslea1 ikaslea1	2	ikasle2 ar., 2014(e)ko abu(r)en 12(a)n, 11:01(e)tan
2. Gaia: erabilera orokorra	1	0	ikasle1 ikasle1 ar., 2014(e)ko abu(r)en 12(a)n, 10:50(e)tan

39. irudia: Foroaren orria

Zure erantzuna

Gaia* Er: Foroa zelan erabili?

Mezua*

Letra-mota Letra-tamaina Paragrafoa [Rich Text Editor Icons]

Bide-izena: p

Harpidetza Bidali e-postaz foro honetako mezua Gehienezko tamaina fitxategi berrietarako: 500KB, gehienezko eranskin-kopurua: 9

Eranskina Gehitu...

Fitxategiak

↓

Fitxategiak gehitzeko, hartu eta eraman ahal dituzu.


Formulario honetan * marka duten derrigorrezko eremuak daude

40. irudia: Foro batean gai bat gehitzeko inprimakia

Eztabaidatzeko gai bat gehitzeko botoia sakatu ondoren, 40. irudian agertzen den formularioaz baliatuko gara gaia eransteko. Testu-editorean, gure mezua idatz dezakegu, eta, irakasleak ezarritako ezarpenak horretarako aukera emanez gero, fitxategiren bat


atxiki ahal izango dugu, beste atal batzuetan (ikus zereginen atala, 18. orrialdea) azaldutako “**gehitu**” eta “**hartu eta eraman**” metodoei jarraituta.

Foro batera sartzen garenean, dagokion esteka sakatu beharko dugu (ikus 39. irudia) gai batera sartzeko, eta orri bat agertuko zaigu, jarraian ikus daitekeenaren antzekoa.



41. irudia: Mezuei lotutako aukerak

Aplikazioak editatzeko, ezabatzeko edo erantzuteko (foroaren ekarpena gurea bada) aukera ematen digu, edo aurreko mezua ikusi eta erantzuteko (eztabaidarekin bat egingo badugu). Erantzunak ikusteko modua ere alda dezakegu.

 *Behin erantzuna bidalita, 30 minutu izango ditugu hura editatzeko.*